

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2015eko iraila • 307. alea

Soraluze 1936 Memoria osatzeko ahaleaginean

æk

SORALUZKO AEK

Matrikulatze epea: irailak 28

Udalaren laguntzaz

BEKA SISTEMA

Baltegieta 2 • 943 751 434 • soraluze@æk.eus

TRISKEL Herboristeria

Dietetika ikasketak egin ondoren zabaldu du Maite Dominguez-ek Triskel denda.

Zela hartu duzu denda zabaltzeko erabakia?

Zaletasun hau nere tiok Galizian, Santiagon, daukan tankera berdineko denatetik dator. Dietetika ikasketak egin ondoren bertan lan egin nuen eta esperientzia horrek asko lagundu dit. Horrez gain, nire gurasoen laguntza izan dut eta osagai guzti hauek bateratzearen ondorioz sortu da Triskel denda.

Nondik dator Triskel izena?

Triskel-a natura, bakea eta emozioak bateratzen dituen ikur Celta bat da. Tioren dendak ere Triskel du izena eta hortik dator nirea ere.

Zer eskaintzen duzue dendan?

Era guztietako produktuak daude; parafarmazia, dietetika eta herboristeria produktuak. Gainera enkarguz ere lan egingo dut. Euskal Herrian BDIH (kosmetika naturalaren ziurtagiri gorena) zigitua duen denda bakarra da nirea. Produktuen artean kremak, ilerako xaboia, gelak, gorputzerako olioak, jana-



Maite Dominguez Etxaniz.

ria, umeendako esnea etab aurkituko ditu datorrenak.

Aholkularitza pertsonalizatua ere eskainiko duzu?

Interesa duenak dieta eta elikagaien inguruko informazioa jasotzeko aukera izango du. Elikagai naturalen inguruko aholkularitza zerbitzua eskainiko dut.

Kontaktuan jartzeko

Telefonoa: 943 50 78 50

Whatsapp bidez kontsultak eta enkarguak: 688 710 639

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera:

09-00-13:30 / 16:30-20:30

Larunbatetan: 10:00-13:30

Lagun artean jateko

Kroketak / Albondigak

Bokatak:

(Gehigarriak: piparrak, gazta, hirugiharra, bakoi)

Solomoa
Bularkia
Begetala
Albondigak

Hanburgesak

(Guztiak patatekin)

- Oinarrizkoa (Okela eta gazta)
- Baionarra (Okela, gazta eta urdaizpikoa)
- Mexikarra (Okela, gazta, pikantea eta tomatea)
- Deluxe (Okela, gazta, lebuga, tomatea eta maionesa)
- Texas (Okela, gazta, hirugiharra eta barbakooa saltsa)
- Potolua (Okela, gazta, lebuga, tomate, hirugiharra eta arrautza)

Pizzak

Atuna / Okela

4 Gazta / Jarioa eta gaztaia

Platerak

(lertxolada, patatak eta piparrak)

Solomoa
Bularkia
Hanburgesa
Arrautza

GAZTELUPE

ezpain hotsak musika daka

Kontzertuak 18:30 etan

Urriak 4 Domeka

The Northagirres

Urriak 11 Domeka

Lurra

III **MUS** campeonato
txapelketa

URRIAK 25 · 16:00



Eramateko prestatzen da

Rabal 23, behea TLF: 943 75 30 16



Etxetik urrun

Azken aspaldian sarri ikusi dugu nola ari den jendea haien jatorrizko herrialdeetatik ihes egiten europako herrialdeetan asiloa eskatzeko.

Baina, zer dira asilo-eskatzailleak eta errefuxiatuak? 1951eko Nazio Batuen konbentzioak haxe dio errefuxiatuen estatusari buruz:

Errefuxiatua da arrazagatik, erlijioagatik, herritartasunagatik, gizarte talde bateko kidea izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarria izateko duen beldur bizia dela-eta, bere herritartasunari dagokion lurraldetik kanpo dagoen pertsona, bere herrialdera itzuli ezin daitekeena edo itzuli nahi ez duena.

Asilo-eskatzaillea da bere jatorrizko herrialdea utzi eta beste batean asiloa eskatuta, eskaera horren erantzunaren zain dagoena.

Baina migratzaile ekonomikoa da, lana edo negozioak direla-eta beste herrialde batera joan den pertsona. Beraz, errefuxiatuak ez dira migratzaile ekonomikoak.

Etorkinek erronka askori egin behar izaten diete aurre. Lekuz aldatzea ez da erraz egiten den zerbait. Familia eta lagunak atzean laga behar izaten dituzte. Eskola eta herri berrietan bizi behar da. Askotan, helduren batek lana lortzen duenean, familia osoak mugitu behar izaten du. Estresagarria da, baina ederra ere bai, aldi berean.

Orain, pentsa ezazu beste herrialde batera zoazela. Ez duzula bertan inor ezagutzen, familian inork ez duela bertako hizkuntza ondo menperatzen eta, bertara helduz, etxe bat eta lan bat aurkitu beharko dituzula; mundu berri bat dirudien leku baten biziraute ikasi beharko duzula. Hona helduz diren etorkinek horrelako egoerei aurre egin behar izaten diete egunero.



Raja Nasir

“Gehienak goera beldurgarrietatik ihesi etorri dira, euren burua eta familia babesteko. Beraz, zuen arreta, maitasuna eta laguntza behar dute.”



P.G.

Jakina da, etorkinak bizi hobe baten bila etortzen dira; izan ere, hainbat arrazoiengatik ziur daude hemen egoera hobea dela haien jatorrizko herrialdeetan baino. Lana egon badago; hortaz, etorkin asko lan-bila etortzen dira. Helmugako herrialdeko hizkuntza ez jakiteak, ordea, lan horietako askotan jardutea zailtzen die. Hori dela-eta, soldata txikiak dituzten lanak hartzea behartuta egon ohi dira eta espero zutena baino eros-ahalmen txikiagoa izaten dute.

Beraz, etorkin berriek bide gogorra izan dezakete osasun edo gizarte-zerbitzuetara heldu ahal izateko. Asko soldata bajuko lanetan dabilta eta ez dute osasun-asegururik. Familiek, askotan, ez dute diru nahikorik izaten farmaziara edo medikuarengana joateko. Gainera, bertako hizkuntza menperatu ezean, batzuk laguntza non eskatu ere ez dute jakiten. Bestalde, medikuarengana joatean, harekin komunikatzeko arazoak izaten dituzte; ondorioz, hark agindutakoak betetzea ere zaila egiten zaie.

Jendea neke eta sufrimendu askoren ondoren helduz da hona, beldurrik gabe bizi ahal izateko. Izan ere, gehienak goera beldurgarrietatik ihesi etorri dira, euren burua eta familia babesteko. Beraz, zuen arreta, maitasuna eta laguntza behar dute. Mesedez, laguntza eman eta goxo har itzazue hemen duintasunez eta ohorez bizi daitezten.

Persona guztiak jaiotzen gara libre eta duintasun zein eskubide maila berberekin. Arrazoiaren eta kontzientziaren dohaina dugu eta elkarrekiko senidetasunez jokatu behar genuke.

Euskalzaletasunaren alde:



SORALUCE

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soralue, Gipuzkoa Telefonoa: 943 75 13 04 e-maila: aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Egoitz Unamuno eta Gaizka Azkarate Zuzentzailea: Leire Ginea Publizitatea: Gaizka Azkarate Diseinua: Iñigo Uribetxebarria Maketazioa: Oier Larreategi Inprimategia: Gertu Koop. Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA



SORALUCEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gutunak

Mesedetako Hirugarrez urtez

egoitzako langileak

Honezkerok, hilabete baino gehiago pasatu da baina ezin dugu ahaztu Soraluzeke jaietan erresidentziak antolatutako egitarauari esker bizitakoa. Hirugarren urtea bete da aurten, gure aittitta-amamen gozamenerako, erresidentziak bere jai-egitaraua antolatzen duena; izan ere, hainbat urtean herriko jaietan parte hartu duten pertsonen, gaur egun, ezin dute jaietan parte hartu, dela ezin dutelako kalera bajatu, edo, dela, gaingitu ezin dituzten oztopoak aurkitzen dituztelako bidean.

Jakitun gara, halako ekitadiak antolatzea ezinezkoa litzatekeela gurekin egoteko tarte bat hartzen duten boluntarioen laguntzarik izango ez bagenu. Hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkiegu aurten ere zentrora hurreratu zaizkigin lagunei, herriko jaietan bete-betean murgilduta egon arren, egoitzaraino etorri eta euren alaitasuna eta ilusioa kutsatu dietelako egoiliarrei, senideei eta egoitzako lan taldeari, zeinak ere, egun horietan, ahalegin berezia egiten duen denek ahal bezain ondo pasatu dezaten.



Elena Perez Txaloak, tomateak eta eskerrak

Mesedeetako jai batzordeko kidea.

Txalo zaparrada bat bidali nahi genieke azkenengo momentuan estuasunetik atera gintuzten herriko merkatariari. Azkenengo momentuan generoa edo berehalako informazioa lortzen lagundu digutenei. Badira diruarekin ordaintzen ez diren gauzak. Eskerrik asko zuen prestutasunagaitik!

Tomateak hormetatik jaietako kartelak kendu zituztenendako. Ez du justifikaziorik. Edukazio eta gizatasun pixkat mesedez!

Eskerrak beti bezala udalari, auzotarrei, babesleei eta gurekin batera gozatzerari etorri zirenei eta lagun izan dugun zeruari.

Jai batzordea osatzen dugunok hasita gaude datorren ediziorako falta diren egunak kontatzen.

Bittartetik



Olatz
Sebal

Gure gorputzak, gure lurraldeak

Gorputzetatikhasietalurraldeguztietara helduko gara, soseguz, denbora gure alde dago.

Baina ez dugu utziko beste gorputz bat erortzen, ezta beste lurralde bat okupatzen ere,

errietara itzuliko gara, gure errai ilunetara, eta bertan aurkituko dugu behar dugun indarra,

behar dugun deiarra.

Ez gara Ebaren ondorengo indargeak, zapore gabeko sagarrak irensteaz aspertu ginen,

krisalida aspaldi utzi genuen atzean, eta ez ginen bertan ito.

Ez gara lurralde okupatuak, gure gorputzek ez dute jada dardar egiten, gureak dira eskuak, gureak dira sorbaldak, gureak ezpainak eta bularrak, gurea da alua eta baita hatzamarra, mila norabidetatik ibiltzeko, ispiuluen gela atzean utziko dugu, danborhotsak jarraituz.

Bularra gehiegi puztu dugu, arnasari sarritan eutsiz, oztopo bakoitzean, aldapa bakoitzean, albiste ilun bakoitzean, zenbaki madarikatu bakoitzean.

Aire guzti horri irtetzen utziko diogu, zurrumbilo handi bat sortuz, eta bertan galduko gara, eta bertan aurkituko gara, bertan ezagutuko dugu elkar, eta bertan maitatuko gara, emakumeen martxa iritsi arte.

Badator, ttipi-ttapa badator. Zai izango gaituzte, inoiz ez bezala ereiteko prest!



Egitasmoaren aurkezpena
Urriaren 13an, 18:30ean
Herriko antzokian





aniztasunean euskaraz bizi!

“Musika kalera atera behar dugu”

Alaitz Urkia

Musika-eskolako zuzendaria



Alaitz Urkia.

Alaitz 34 urteko hondarribitarra da. Donostiako Musikenen egin zituen goimailako piano ikasketak eta hizkuntza musikaleko pedagogia ikasketak ere bai. Bederatzigarren ikasturtea izango du aurtengoa Soroluzeko musika eskolan eta lehenengoa zuzendari modura, uztailean batzarrak zuzendari izendatu ostean. Nagore Sanz izango du alboan, aholkulari moduan.

Zer dela-eta aurkeztu zinen zuzendari postura?

Joan zen ikasturtearen amaieran barne-araudiaren barruan aldaketa batzuk egin genituen musika eskolako batzordetik eta zuzendaritzara hautagai aurkezteko aukera sortu zen. Momentu horretan gogotsu eta ideia askorekin sentitu nuen neure burua, erronka berri baterako gertu.

“Kaleko jendearengana heltzea da erronka nagusienetakoa”

Ze egitasmo aurkeztu duzue zuek?

Didaktika aldetik egiten ditugun proposamenak interesgarriak dira beste herri batzuentzako, batzuek horiek ezagutzeko interesa adierazi digute. Kanpotik pertsona ezberdinak metodologia ezberdinak erakustera ekartzeko da beste ideietako bat, adibidez, musikaren astea egin eta umeentzat berritzaile eta aberasgarri izan daitezkeen ekintzak antolatu.

Zela joan da aurtengo matrikulazioa?

Ondo. 122 ikasle matrikulatu dira aurtun eta 13 irakasle gaude. Aipatzekoa da ikas-

le kopurua mantendu izana, azken urteetan, krisi ekonomikoaren eraginpean izan arren.

“Aurtengoa trantsizio urtea izango da”

Ba al da berrikuntzarik aurtengo ikasurterako?

Aurtengoa trantsizio urtea izango da. Musika-eskolaren nahia egunez egun ahalik eta gehien hobetzea da. Erronkako bat kaleko jendearengana nola heldu asmatzea izango da.

Zer da kaleko jendearengana heltzea? Ideia berri horietakoren bat aurreraterik bai?

Pasadan urtean izan zen 25. urteurrena eta egun horretarako ekintza batzuk prestatu genituen. Uste dut era horretako ekintzat gehiago egiteko gaitasuna dagoela. Uste dut musika-eskolak kanpora begira garbiketa bat behar duela. Erakutsi behar dugu herrian gaudela eta eragile aktibo bat garela herriarentzat.

Zela ikusten duzu musika-eskola herrian?

Uste dut kultura alorrean entitate handienetarikoa dela eta zer esan handia izan beharko lukeela dituen ikasle kopurua handia delako. Pentsatzen dut Soroluzeko hezkuntza-prozesuaren barruan egon beharko litzatekeela eta bertan parte hartu eragile aktibo bezela.

Aipatu zenuen Soroluzeko musika-eskola inguruko herriendako erreferente izan daitekeela?

Esango nuke, gurean, sarri, herri txikiaren etiketarekin gauza asko gutxiesten direla. Soroluzeko musika-eskolak potentzial handia du. Pedagogia eta didaktika alorrean gauzak oso ondo egiten ditu. Publikora eta kanpoko herrietara begira badaukagu zer erakutsia.

“Soroluzeko musika-eskolak potentzial handia du”

Zertan hobetu behar du?

Umeek 12 urte betetzen dituztenean musika-eskola uztearen arrazoiak ikertzen lan egitea gustatuko litzaidake. Musika-ikasketek, askotan, talka egiten dute neraberearekin eta horri konponbidea bilatu behar zaio. Bestalde, nagusiagoak musika eskolara gerturatzea ere ona litzateke.

Egin ezazu musikaren eta musika-eskolaren apologia pixkat. Zergatik da garrantzitsua musika?

Egiaztatuta dago musika pertsonaren nortasunerako onuragarria dela. Gure moduko musika-eskola batean, onura hori modu indibidualean eta kolektiboan transmititzeko gaitasuna daukagu. Musikak pertsonari diziplina bat ezartzen dio, ondo pasatzeko aukera ematen dio, ikasi egiten da eta harremanak indartzen dira.



1960-2010 bitarteko biktimak omentzeko ekimena



Dispersioaren biktimek memoria ere jaso behar dela eskatu zuten Karakaten, Asier eta Iñakiren oroimen-ekitaldian.

Eusko Jaurlaritzak 1960-2010 bitartean bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen biktima izan ziren pertsonak omentzeko ekimena jarri du martxan. Irailaren 4an Bilbon egin zen ekitaldian jaso zuen alkateak Soraluzei dagokion txostena. Txosten horretan jasotzen di-

ren biktimak bi dira: Vicente Soria Blasco herritarra - ETA-k Ormaetxea Torlojuak lantegiaren ondoan hil zuen 1976ko martxoaren 30ean- eta Jose Luis Gomez Solis, Guardia zibilaren sargentua - ETAK hil zuen Gila tabernatik ateratzen ari zela 1987ko abenduaren 11n-. Txostenean, hilketa horien inguruko beste hainbat xehetasun jasotzen dira.

Ados jarri nahian

Alkateak adierazi digunez, "txostena irekia da" eta gainerako alderdi politikoei zabaldu die gaia aztertu eta euren iritzia eman dezaten. Jasotako erantzunaren arabera, erabakiko omen du udalak Jaurlaritzak azaroaren 10ean udalerriz udalerriz egitea proposatu duen omenaldia antolatu ala ez. Alderdien artean adostasunik ez bada, ekitaldirik ez dela izango ziurtatu du.

FotoNotizia



Ahaztutako bainu-leku ederra Sagar-errekan

Sagar erreka bidean gora, Ospitaleko edo Kukupeko iturria esaten zaiona pasatu eta metro batzuk aurrerago dago irudian agertzen den potzura jeisteko bidea. 1,70 metro inguruko sakonera duen potzua dago bertan, bainurako aproposa, ur freskoa gustuko izanez gero. Autopistako lanak hasi aurretik ohitura handia ei zegoen herrian bertara joateko. Beheraxeago bolatokia eta jatorduetarako lekua ere ba ei zegoen, "santanderinoen bolatokia" esaten ziotena.

Belaitzendako ekintzaile saria

Belaitzek bigarren saria lortu du Debabarreneko Ekingune elkarteak antolatutako *On Ekin* lehiaketan. Epaimahaikoak zerbitzuak lehen sektoreko ekoizleei eskaintzen dien hurbiltasuna eta kalitatea azpimarratu ditu: "hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dute lehengaietan, inora mugitu beharrik gabe, etxerako zerbitzua ere eskaintzen baitute, mugikortasun arazoak dituzten bezeroen onurarako". Iraitzek eta Isak apirilean jarri zuten martxan Belaitz Hornikuntzak saltokia eta gustora jaso dute saria, "egindako lanaren aitortza delako eta egitasmoa ezagutarazten lagunduko duelako".



Beste auto bat ibaira

Abuztuaren 31n, Maltzagara bidean zihoan auto bat jausi zen ibaira, Embalajes Ansola lantegia zenaren parean. Autoa azpikoz gora gelditu zen, baina gidariak bere kabuz irten ahal izan zuen. Mendaroko ospitalera eraman zuten eta ez ei zuen zauri larririk jasan. Handik egun batzuetara erretiratu zuten autoa ibaitik. Asko dira, urteotan, bihurgune horretan edo Mendiola industrialdekoan hesia jo eta ibaira jausi diren autoak.





MAPFRE

Ainhoa Ibarzabal

Osasunaren hilabetea: %30eko beherapena zure aseguruan

Gabalatz, 5-8 behea
Soraluze (Gipuzkoa)
ainibar@mapfre.com

Tlf: 943 75 16 58
Mugikorra: 649 75 93 78
Fax: 943 75 16 10

EGOTZA

Ahuntz esne gordinez egindako gazta

Salmenta zuzena:
615 763 062

Nagore Martin Ugarte
Egotza Baserría
Soraluze



Korearrak Industrias Golen jabe

Industrias GOL lantegia Global SM Tech talde korearrak bereganatu du, Grupo ALFA taldeari 18 milioi euro ordaindu eta gero. Global SM Tech hegokorear jatorriko taldea da, mikro-abiadura eta karbono isurketak murrizteko sistemak lantzen dituena. Albistea baieztatu zuen webgune korearraren arabera, uztailearen 18an itxi zuten Industrias Gol eskualdatzeko akzio-trukaketa egiteko akordioa. Jabe berriek ez dute adierazpenik egin nahi izan oraingoz, lantegiaren kudeaketan buru-belarri dihardutela argudiatuta.



Bi basurde errepidean

Aurreko asteetan bi basurde ibili dira San Andres auzoko errepidean eta baserri inguruetan. Keixeta erre-karen ondoko txabola batetik ihes egindakoak ei dira eta, pertsoekin harremanetan izatera ohituak daudenez, asko hurreratzen dira jendea dabilen lekuetara. Herritar batek Argateburu parean ateratako argazkian bi basurdeak ikusten dira errepidean behera.



Euskararen bidean laguntzeko pertsonak behar dira

Urriatik aurrera, beste hizkuntza bartzuetako hiztunak euskarara erakarri eta erabiltzerainoko bidea egiten laguntzeko erreminta berria jarriko du martxan Pil-Pilean euskaltzaleen topaguneak, udalarekin eta AEKrekin batera: *auzoko egitasmoa*. Berbalagun egitasmoan bezala, euskal hiztunen parte hartzea izango da egitasmoaren oinarrietako bat baina kasu honetan, euskararen ezagutzarik ez duten herritarrek ere parte hartu ahal izango dute. Hainbat dinamikaren bitartez, poliki-poliki euskal mundura hurreratu eta euskararekin jolas egiten hastea izango da helburua. Urriaren 13an (martitzena) egingo dute aurkezpena antzokian, arratsaldeko 18:30ean.

Bidelagunak eta auzotarrak behar dira

Bi egitasmoetan auzotar eta bidelagun jardungo duten pertsonak behar dituzte orain. Astean behin euskaraz berba egin edo euskarara hurreratzeko dinamiketan parte hartzeko prest izango diren euskal hiztunak. Maialen Elizburu izango da



Berbalagun kanpainan Euskal Herri mailan zabaldu den eskuorria. Bi herritar azaltzen dira bertan.

dinamizatzailea eta izen-ematea zabalik dago (tel. 943 751304 / auzoko@pilpilean.com / berbalaguna@pilpilean.com).

Emakumeen Mundu Martxa

Irailaren 11n eman zuten Gaztetxean, Emakumeen IV. Mundu Martxa delata herriko hainbat emakumek bultzatuko dituzten ekimenen berri. Aurkezpenean musika eta olerkiak izan ziren, eta, ostean, emakume nekazarien omenez – aurten elikadura subirautea baita martxaren gaia - haziak eta mezuak erin zituzten zubiko lorontzietan. Bestalde, zapatuan, orain bost urte kiroldegira bidean jarritako murala berritu zuten. Urriaren 2an, Bergarara joateko deia zabaldu dute, 13:00ak aldera helduko den martxari ongi etorria emateko. Bestalde, urriaren 4an, Bilbon egingo den ekitaldi nazionalerako autobusa ere antolatu dute herritik. Interesatuak 699198205 telefonora deitu behar dute.



Herriko hainbat emakume Gaztetxean egin zuten aurkezpen-ekitaldian.

IZAGUIRRE
Igeltseritza

943 75 11 62 • 649 867 289

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11

SORALUZE 1936

Azarorako liburua

Soraluze 1936 lan-taldeak azaroan kaleratuko du gerra garaian herrian gertatutakoaren kontakizuna jasotzen duen liburua. Dokumentatutakoaren arabera, 40 herritar hil ziren.

1931 urtean 2.893 herritar zeuden errol-daturik Soraluzen. Industria zen sektore-rik indartsuena, armagintza zen nagusi eta SAPA zen lantegirik handiena. Indar politiko bakoitzak (karlismoak, abertzaletasunak eta sozialismoak) elkargune bana zuten eta sindikatuak ere baziren. 1936ko uztailean altxamendu militarra izan zenean, soraluzetarrak hari aurre egiteko antolatuta ziren: EAJK eta PSOEk defentsarako batzordea sortu zuten udalean. Herrian zaintza armatuak antolatuta ziren, hainbat lagun atxilotu zituzten eta bolondres ugari frentera joan ziren. Hala, irailaren 22an tropa naziolan sartu ziren herrian eta bertan gelditu ziren fronteak iraun zuen 7 hilabeteetan. Atxiloketak, lapurretak, irainak... berehala hasi ziren. Tiroketak eta bombardaketak izan ziren, hildakoak eta zaurituak eragin zituztenak. Tropak sartzerako, biztanleen erdia Bizkaira joana zen. Han bombardaketetatik ihesi ibili ziren gehienak eta herbesterako bidea hartu zuten askok. Bien bitartean, miliziano eta gudariek borrokan ziharduten (Itxarkundia, Loiola eta Amuategi batailoietan gehienak) eta hala aritu ziren Laredon preso hartu zituzten arte. Herritarrek kartzela zigorrak, derrigorrez frentera joan beharra, herbesteratzeak, langileen batailoietan aritu beharrak, fusilamenduak, desjabetzeak, lanpostuak galtzeak, irainak eta bestelako zigorrak jaso zituzten. Dokumentatutakoaren arabera, 40 herritar hil ziren gerran.

Gaztañerretarako kalean

Soraluze 1936 lan-taldea 2010ean sortu zen eta ordutik hona hainbat ekimen publiko egin ditu 36ko gerran "isildutako ahotsak entzunarazteko": erakusketa, omenaldiak, dvd-a, monolitoa... Azaroan 200 orrialde pasatxoko liburua kaleratuko dute, 34 herritarren testigantzak eta dozenaka dokumentu eta argazki jasotzen dituen. Gaztañerretan aurkeztuko dute.

Benita Gallastegui Galarza
(1923 - 2011)

Resu Gallastegui Galarza
(1921)

Donostian harropatu zituen gorrak, hamabost eta hamar urte zituela. Hantxe bizi ziren Miraluz kalean eta liburu denda zuten etxean. "Estuve tres años que viví en la gloria. Empezó la guerra y ya se cortó aquello." (Resu) Lehenengo iriak erortzen zituzten, Tolosan hildako ama semeen gorpu zirkuluak ikusi zituzten eta milizianoek egindako fusilamendu bat ere bai. Alta eta ania frentera joan ziren eta bertan eberru itasontrietatik jaurtzen zituzten tiroen metrala ikusi zen. Horiek izan ziren hasierako bihurtak.

Ama eta hiru abak Donostiak Soraluzera etorri eta berehala hemendik trenet Bilbora joan ziren. "No recuerdo cuándo llegamos a Bilbao; nuestra familia ocupábamos un vagón entero y solamente quedó un hermano de mi padre en el pueblo y mi abuelo llorando en la estación. Era bastante tarde cuando llegamos y nos dieron un vaso de leche a cada uno. Esa noche nos alojaron en las escuelas de Abas." (Benita) Han izendatzen zituzten etxean egon ziren hilabete batzuk eta Mercedes ahizpa ziharraren ziklorita ere ospatu zuten. "Salimos a la calle y donde veíamos una cola, allí nos poníamos, sin saber siquiera qué vendían. A veces eran unos caramelos de Santiago, otras veces era un

poco de mermelada, pues ya empezaba a haber hambre. Luego empezaron los bombardeos. Cuando sonaba la sirena, nos hacían bajar a un refugio, que no era más que un bajo de la casa de al lado, donde estaba la fábrica de caramelos "La Milagrosa". Mi hermana Resu y yo decidimos no bajar más, así que cada vez que sonaba la sirena, nos quedábamos en casa, pero un día cayó una bomba en la casa de al lado y nos asustamos de verdad. Aquella tarde nos fuimos a Begoña, a casa de un practicante que era pariente de mi cuñado, allí estuvimos una temporada."

Resu urte bukera aldera Durangora eraman zuten izotza baten eberru eta bombardaketa bizi izan zuten. "Ora como en sueños "Resuuuuu", hasta que con el ruido de las aviones me desperté. Entonces ya me di cuenta de lo que era, salí corriendo al pasillo, me quedé así en un rincón y ya me cayó todo". Zortzi egun gehiago eman zituen han eta egunero ametrallatu eta sartzko bonbak bota zituzten. Gero, Bilbora itzuli zen amarengana.

"Horiek aurrerako Benita eta Resuren bihurtak liburuari zhar bertatu diadit"

“Ya empezaba a haber hambre. Luego empezaron los bombardeos en Bilbao.”

Liburuko 126. orrialdea.

ERREKETEEN SARRERA HERRIAN (128. orrialdeko pasartea)

(...) Iluntzeko bederatziak aldera sartu zen Soraluzen Tercio de Montejurra zelakoa, Estaziño aldetik, kanposantuko aldapatik behera. 600 bat erreketek ziren, lau konpainia. Viva Cristo Rey diharka, kaki koloreko uniformeak eta txapel gorriak jantzita ("txapel gorriak" ere esaten zitzaizkion nazionalen horregatik) eta fusilak soinean zituztela sartu ziren. Fusilen puntetan Santo Kristoaren eskapularioak zeramatzen lotuta. Hala, bandoa jo zuten herritarrei etxeetan har zitzaten eskatuz. Ordurako ordea, jende gutxi zegoen herrian, gehienak joanda zeuden-eta. Irailaren 20ko iluntze aldera, pregoia jo zuten herrian, erreketek bazetozela esanez, eta zortziretan Bilborako trena zegoela, dohainik, nahi zuenak har zezan. Jende askok alde egin zuen herritik: urte bereko azaroan egindako kontaktaren arabera, 1.120 lagun falta ziren herrian. Milizianoek irailaren 21ean laga zuten Soraluze, nazionalak sartu aurreko egunean.

Tropak, berriz, herrian gelditu ziren, etxeetan, eskoletan... eta hustutako etxeak okupatu edota sakeatu zituzten, baita kasu batzuetan herriko jendeak ere. Jatorduak ere herritarrek eman behar izaten zizkieten. Bertan gelditu ziren 1937ko martxoaren 28an herria utzi zuten arte. (...)



“Soraluzen gertatu zenaren kontakizun bat osatzen ahalegindu gara”

Ana Maiztegi

Historialaria, “Isiltasuna hausten. 1936ko gerra Soraluzen” liburuaren egilea

Zer da liburuan jaso duzuen?

Soraluzen gertatutakoaren kontakizun bat. Tokian tokiko historiek ez dute lekurik izaten herrialdeen historian, eta protagonista “txikiak” ikusteaz bihurtzen dira. Artxiboetako dokumentuekin batera (gutunak, informazio eskerak, konfiskazioen erregistroak, ibiltzeko-baimenak...) gertatu zenaren kontakizun bat harilkatzen ahalegindu gara.

Historia ofizialak ezkutatutako historia azaleratzea izan da motibazio nagusia: ahaztuak izan zirenak gogora ekarri eta haien sufrimendua aitortzea. Bost urteotan jasotako materiala liburu batean eskaini nahi dugu.

Horrenbeste urteren ostean, ez zen lan erraza izango?

Ez, pertsona asko hilda daude eta oraindik ere ate guztiak ez daude zabalik. Hala ere, berrogeiren bat lagunentzako jaso dugu eta Udal Artxiboko eta Parrokiko Artxiboko dokumentazioa aztertu dugu. Esaterako, anonimo baten osatutako hildakoen zerrenda aurkitu genuen esaterako. SAPAko artxiboak kontsultatzen ere ahalegindu gara, baina Antonio Infante (SAPAko ingeneria izandakoa) emandako dokumentazioaz gain, ez dugu bestelakorik aztertzeko aukerarik izan. Hainbat norbanakok he-

larazi digun dokumentazioa ere aztertu dugu: argazkiak, sententziak, gutunak, konzentrazio-zelaietako zerrendak, baitailoietako ordainagiriak...

“Galtzaileak isilik egotera behartuak izan ziren, frankismoaren errepresioaren beldur”

“Isiltasuna hausten” izena eman diozue.

Gerra bizi izan ez genuenok frankisten historiografian jasotako bertsio ofiziala ikasi dugu, baina askok sukalde bazterretan entzun dugu bestelako historia bat, ia ahapeka, oroimenez eta errepresioarekiko beldurrez bete. “Galtzaileak” isiltasunera behartuak izan ziren, frankismoaren errepresioaren beldur; ondorioz, sufrimendu eta bizipenak barren barrenean gorde behar izan zituzten.

Zorionez, gero eta handiagoa da memoria berreskuratzeko biltzen ari den historiografia. Oraindik, ordea, asko dago egiteko. Laurogei urte pasatu arren, oraindik ere badaude erresistentziak, eta gauzak bere horretan lagatzea hobe dela pentsatzen dutenak. Horregatik, “isiltasuna hausten” izena ematea aproposa iruditu zitzaigun.

Zuk zeuk zer ondorio atera dituzu lana egin ondoren?

Nik gerra guztiak bere baitan duten zentzugabekeria eta gerra horrek eragin zuen sufrimendua, injustizia eta eskubideen urraketak ikusi ditut. Beti bezala, begiratzeko duzun ikuspuntuaren arabera da hori. Irabazi zutenek egindakoaren zilegitasuna defendatzen jarraitzen dute; guk jasotako testigantza eta dokumentu askok, ordea, etsipena, ezintasuna, amorrua eta injustizia erakusten dituzte.

“Laurogei urte pasatu arren, oraindik ere badaude erresistentziak”

Soraluze 1936 lan-taldeak bost urteko ibilbidea egin du. Zelako balorazioa egingen duzu egindakoaz?

Hasieran, zehaztutako helburuen arabera balorazioa ezinhobe da. Aurreikusitako zeregin guztiak bete ditugu, eta horien bidez uste dut ahaztutako sufrimendua aitortu eta memoria berreskuratzeko prozesu orokorrean geure ekarpena egitea lortu dugula. Horrekin batera, herriari gaiaren inguruko erantzun bateratua lortu dugulakoan nago. Hasierako mesfidantzak gairatu eta sektore askotako jendearen kolaborazioa eduki dugu eskatu izan dugun guztietan. Liburu bera lorpen demasa da. Atzean jende askoren lana eta ekarpenak daude.

Hemendik aurrera zer?

Hemendik aurrerakoaz ez dugu pentsatu. Ziklo bat itxi dugula esan genezake, baina ziklo hau beste proiekturen baten oinarri ere izan daiteke. Zeinek daki. Ez dugu ezer erabaki.

1960-2010 bitarteko giza eskubideen urraketak gogoratzeko egitasmoa abiatu du Jaurlaritzak. Zure esperientziatik zein irizpide gerta daiteke lagungarri?

Udalak deitu izanak erakunde ofizialtasunaren bultzada eman zion. Bestalde, taldean pentsakera desberdinak izan arren, hasieratik helburuak adostea eta definitzea funtsezkoa izan dela uste dut. Hartutako konpromisoari eustea ere garrantzitsua izan da.

Asko zaindu dugun beste aspektu bat guztienganako errespetua izan da. Hasieratik erabaki genuen ahaleginduko ginela inor ez “mintzen”, eta irizpide horri jarraitzeko ahalegina egin dugu. Hasieratik ahalegindu gara ekimenetan ahalik eta babes sozial handiena lortzen, herritarrena ez ezik, herriari ordezkariak duten alderdi politikoena ere bai.

MESEDEETAKO JIAK Elena Perez



Gozoak behar zuten txorixo pintxoek, ze segituan amaitu ziren.



Kukumixok ilusioz eta irribarrez bete zuen plaza. Umeen nahaste-borraste paregabea.



Ze gozoa zegoen paella halako lagunarte ederrean (jai batzordeko zenbait kide).



Kilimonek (Iparraldea) alaitasunez girotu zuen beste behin auzoa, Xalbador eta Mattin batera eta bestera zebilzkitela.



Zapatu gaueko golferiaren erakusgarri. Bakarren batzuk tragoa eskuan eta mundua konpontzen harrapatu zituen goizeko eguzkiak.



Eskuma aldean Paqui, patata tortilen irabazlea. Ezkerrean Mirari, bigarren saria jaso zuena. Josu, Fermina eta Carmen, bapo jan zuten epaimahaikideak. Eta irabazleak zoriondu zituen alkatea.

**TXURRUKA
JATETXEA**
www.txurruka.com
943 75 15 81

**TXURITXU
GOZOTEGIA**
Tel. 943 75 24 43
Pastel eta gosari goxuenak dastatzeko lekurik onena
Etxera banaketak egiten dira

Soraluze futbol taldeak aurkeztu ditu 2015-2016 denboraldiko jokalaririk

Bertan izan ziren aurtengo taldea osatzen duten 8 taldeetako 150 jokalaririk, zuzendaritzako partaideak eta zaletuak.



Jokalaririk eta zuzendaritza-taldea irailaren 12an egindako aurkezpenean. Argazkiak: Jokin Ruiz Mateos.

Zapatuan, hilak 12an, Ezoziko futbol zelaian egin zen Soraluzeko Futbol Talde guztien aurkezpena. Arratsaldeko 4 etan, harmailakjendez gainezko zirelarik, eta irribarrea nagusi haurren aurpegietan. Eguraldiak lagundu zuen eta banan-banan atera ziren berdegunera talde guztietako jokalaririk, gazteenetatik hasita heldueneraino. Iosu Arriola Soraluzetarrak egin zituen jokalariren aurkezpenak. Taldearen %80 herritarrek osatzen dute eta beste %20a kanpoko jokalariek.

Nesken eta kadete mailako talderik ez Bigarren urtez jarraian, ez da nesken talderik izango. Herriko bost neskek mutrikun jokatu dute datorren urtean.

Kadete taldearen kasuan gauza berbera gertatu da, aurten ez da talde hau sortzeko jokalaririk kopuru nahikorik izan eta, ondorioz, lehen aldiz Soraluzeko futbolaren historian, ez da kadete talderik izango.

Eskola Kirola

Lau taldek osatzen dute aurten eskola kirola: lehen eta bigarren urteko benjamin taldeak, bigarren urteko alebinaketa infantilak. Besteak beste, 65 umek osatzen dute

eskola kirola eta hortaz etorkizun oparoa dauka futbolak Soraluzen.

Euskararen erabilera

Zuzendaritzak eta udalak hitzarmena berriztu dute klubean euskararen erabilera indartzeko. Klubak euskararekiko duen konpromezua berretsi du eta entrenamendu zein partiduetan hizkuntza nagusia euskara izan dadin lanean jarraituko dutela adierazi du. Futbol-taldeko presidentek pena handia erakutsi du Sora B-k kopa irabazi zuenean udaletxeko balkoitik ezin izan zizkiolako herriari eskerrak euskaraz eman.

**“Eskerririk asko futbol zelaira
joaten zareten guztioi”**

Zaleei eskerririk beroena

Zuzendaritzak eskerrak eman nahi dizkie urtez urte Soraluzeko futbola posible egiten duten Soraluzetar guztiei. Partiduetan saltzen diren rifak erosteak sostengatzen du, hein handi batean, kluba eta zelaira gerturatzen direnekiko esker ona eta leial-

tasuna oso garrantzitsua da Soraluzen futbolak aurrera jarrai dezan.

Omenaldi berezia

Marko Rascón, Yurgi Rascón eta Ekhiotz Munerari Soraluze Futbol Taldearekiko lehialtasuna eskertzeko plaka bana banatuko zaie Ezoziko futbol zelaian urriaren 3an jokatu den partiduan.

Fisioterapeuta zerbitzua

Lehen aldiz talde guztiek fisioterapeuta zerbitzua izango dute erabilgarri astean bigunetan. Laida Tejero fisioterapeuta izango da zerbitzu honen arduraduna.

Taberna

Futbol-zelaiko tabernaren ardura Ana Palacínek izango du aurtengo denboraldian.

Zuzendaritza-taldea

Miguel Angel Cenxual (lehendakari); Gorka Zubiaurre (idazkaria); Javi Isturiz (kirol zuzendaria); Lidia Fernandez (eskola kiroleko koordinatzailea); Alberto Goenaga eta Moises Gallastegi (diruzainak); Valentín Gil (kadeten taldeko ordezkaria) eta Gorka Arrillaga (komunikazioa).

KLB6
Kalebarren 6
943 57 74 26
Orduak
9:30etik 13:00ra
15:30etik 20:00ra

Mutil eta neskantzat jantzi eta oinetakoak
Astero erropa berria

KLB6
Sara jantziak

AURREZTU ENERGIA

Berotu ebrea
BIOMASA ETA
EGURREZKO
galdarekin

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



SORA "A"

Gorengoan Preferente maila

ENTRENATZAILEA

• Iñaki Garcia "Pele"

JOKALARIAK

1 Iñaki Arribillaga	12 Brian Lopez
2 Aitor Blanquez	13 Andoni Odriozola
3 Adur Barrios	14 Borja Olaizola
4 Unai Cabo	15 Ibai Rascón
5 Jon Casado	16 Julen Riveras
6 Beñat Catalán	17 Jonathan Sanchez
7 Aritz Cenzual	18 Josu Unanue
8 Ander Dominguez	19 Jokin Vaquero
9 Asier Fernandez	20 Iurgi Rascón
10 Andoni Isusi	21 Oier Ariznabarreta
11 Jon Laskurain	22 Markel Gustino

"Maite dut erregional mailako futbola"

Bi urte entrenatu gabe egon eta gero bueltatu da Iñaki Garcia "Pele" Soraluzera, bertako berotasuna eta egindako harreman estuak bultzatuta.

Iñaki Garcia "Pele" Zaldibartarra da eta 41 urte ditu. Zortzi urte daramatza entrenatzen, Zaldibarren hasi zen jubenil-mailan, ondoren, erregional mailara egin zuen saltoa Ermuan eta Zaldibarren. Azkenik, Sora entrenatu zuen orain dela hiru denboraldi, eta berriz bueltan da indarberrituta. Richard Rodriguez eta Ion Romero izango ditu laguntzaile denboraldi honetan zehar "Pelek".

Futbol zale amorratua

Erregional mailako futbola maite du "Pelek" eta nahiago du erregional-mailako Soraluze eta Bergararen arteko partidua bat ikustea, lehen mailako euskal derbi bat ikustea baino. Gainera, uste du goi mailako futbolak min handia egiten diola erregional mailako futbolari, izan ere, etengabe daude partidua eta horrek herrietako futbol zelaietara jende gutxiago gerturatzea dakar.

2014-1015, denboraldi gorabeheratsua

Zale modura jarraitu zuen "Pelek" azken denboraldia. Denboraldi hasiera paregabea egin zuen taldeak baina bigarren buelta oso txarra, eta horrek azken unera arte sufritzen egotea ekarri zuen. "Soraluzen egon nin-

tzen urtean, harreman handia egin nuen zuzendaritzako jendearekin eta jokalariekin; ondorioz, taldearen entrenatzaile izatetik taldearen zale bilakatu naiz".

Aldaketa ugari azken urteetan

Soraluzeko taldea asko aldatu da "Pele"-k utzi zuenetik. Orain dela hiru urte, herriko jokalaria osatzen zuten taldearen % 80a eta, gaur egun, kanpotarren eta herrikoen artean erdik eta erdik osatzen dute taldea.

"Gustatuko litzaidake herriko jende gehiago izatea baina aurre ez da posible izan, pena da"

Dena den, behin denboraldia hasita jokari guztiak berdinak dira entrenatzailearentzat eta bakoitzak borrokatu beharko du hamaikakoan sartzeagatik. "Askok baloratzen dut kanpotik datorren jendea, hemen ez dago ez dirusaririk, ez arroparako dirurik...".

Talde gaztea

Jokari askok utzi dute futbola aurre eta horrek taldea gaztetzea ekarri du. " Talde gaztea izateak ez du esan nahi ez denik

talde heldua, oso talde heldua daukat, azkarra eta futbola gustatzen zaiona". Ilusioa eta grina ez dira falta eta proiektuak itxura bikaina dauka aurre denboraldian ikusitakoa eta gero.

Hasteko irrikak

Maila hauetan oso zaila da jakitea taldeak zer nolako maila emango duen eta horretarako, lehenbailehen lehiatzen hastea da onena. "Helburua partidu guztiak irabaztea da, oraindik ez dakigu gure aurkariak nolako jokalaria dituzten, jardunaldiak aurrera joan ahala argituko da dena". Futbola joko bat da, ondorioz, ondo hastea ezinbestekoa da partida asko ez galtzeko.

Sorak badu zerbait berezia

Soraluzeko taldearekin bete-betean egin zuen bat "Pelek". 2012. urteko denboraldia oso ondo joan zen eta harremanak azkar sendotu ziren entrenatzaile, jokari eta zuzendaritzaren artean. "Soraluzeko jendeak ez dauka zerikusirik beste herrietakoekin, Soraluzekoek badute zerbait berezia". Kasu kasuko bizitako esperientzia onak barruraino sartu ziren, bai "Pele"ren bihotzean zein Sora-ren bihotzean.

ARMENDIA
JATETXEA

Ezoz Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA

TXOKO
KAFETEGIA

Elkartzen
gaituen
txokoa

Kalebarreneko kale kantoian Tel. 943 75 17 89



SORA "B"

Erregional maila

ENTRENATZAILEA

• Ander de Luis

JOKALARIAK

1 Ion Agirregomezkorta	13 Jon Labaka
2 Haritz Aranberri	14 Raul Campaña
3 Argoitx Ariznabarreta	15 Aitor Luna
5 Jokin Arrillaga	16 Gorka Ojea
6 Urko Azula	17 Aitor Oregi
7 Aimar Bengoa	18 Egoitz Placencia
8 Aitor Bueno	19 Borja San Jose
9 Nordin El Haossuni	20 Ander Sanchez
10 Iñaki Gabilondo	21 Mikel Uriguen
11 Haritz Igartua	22 Mikel Oregi
12 Aitor Hontangas	

“Norantza berdinean arraun egitea da gakoa”

Hirugarren urtea du Anderrek Sora B-ko entrenatzaile bezala eta ilusioa urtetik urtera modu ezberdinean bizi du.

Ander de Luis Soraluze tarra da eta 28 urte ditu. Betidanik jolastu du Soraluze ko futbol-taldean, tartean, kanpoan urterenbat jolastu duelarik. Orain dela 7 urte hasi zen Soraluze ko kadeteen taldea entrenatzen, eta, gaur egun, Sora B taldeko gidaria da. David Borinaga izango du, urtero lez, laguntzaile.

Ametsetako denboraldia

Denboraldi hasieran imaginatu ere ez zuen egiten taldeak Gipuzkoa kopa irabaziko zuenik. Taldearen historia laburrean lehen titulua da eta jokalariek gehienentzat beraien futbolari ibilbidean irabazi duten bakarra. “Herriko jendeak osatzen zuen taldea ia bere osotasunean eta hori izan zen gakoetako bat”. Jokalariak merezi dute, behin bada ere, irabazteaz gozatzea futbolari moduan polita delako baina pertsonalki ere asko betetzen duelako.

Txapela kentzeko moduko harrera herrian Hitzaz azaltzeko zaila izan zen herriak taldea agurtu zuen unea. Udaletxeko balkoiara igo eta behean jendetza taldeari ohiuka eta txaloka. Jai giroa izan zen bertan, txupina lehertarazi, jendea txanpaina botatzen, sorako kamisetak, banderak...izugarria.

Aldaketa gutxi taldean

Taldea ez da asko aldatu aurreko urtearekin alderatuz: bi pertsona igo dira A taldera, bik utzi egin dute futbola eta bi fitxaketa bakarrik egin ditu taldeak. Lau jokalariek daude 27 urtetik gorakoak eta ia beste guztiak 22 urtez azpikoak dira. “Denek ikasten dute zerbait taldekideengandik, gainera, kategoria honetan jokalariek beteranoak eta jokalariek gazteak behar dira”.

“Aitortu beharra daukat egun horretako bideoa behin baino gehiagotan ikusten dudala, oso hunkigarria da”

Apaltasunez borrokatzeko urtea

Kopa irabazi izanak ezin dio taldeari inongo harrotasunik eman, bestela, egoera ez da ona izango Erregional mailan, ezin zara fidatu: “helburua disfrutatzea da eta Sora A-rako jokalariek prestatzea”. Aurrendenboraldian Sora B baino goragoko taldeek deitu dute lagunartekoak jokatzeke, eta hori Gipuzkoako kopa irabaztearen ohiartzunagatik da. “Pasa den denboraldian futbol-

talde asko kanporatu genituen txapelketatik eta aurten errebantxa bila etorriko dira”

Igoera-fasea jo mugan

Taldearen nahietako bat, bere historian lehen aldiz, igoera-faserako sailkatzea da, eta, behin sailkatuta, ahalik eta partida gehien irabaztea. Horretarako, badakite partida asko irabazi beharko dituztela eta, ezinbestean, hasieratik taldea gogorra eta bateratua izan beharko dela. “Sailkatze postuengatik borroka egiteko, guretzat beharrezkoa da Ezozin zein kanpoko zelaietan partidak irabaztea”.

Zaletuaren ilusioa

Aurreko denboraldian taldeak partiduz partidu norgehiagoka asko irabazi zituen eta partidetan egon ziren zaletuen arpegietan nabaritu zen hori. Jokalariak bereganatu egiten dute zaletuaren ilusioa eta hori da talde batek behar duen gehigarria. Aurten, denboraldi berri baten aurrean aurkitzen da Sora B eta zalearen ilusioaren beharra izango du, beste behin ere. “Denok norantza berdinean arraun egitea da gakoa, zaletuak zein jokalariek; horrela, lortuko dugu berriz ur aparretan ibiltzea”.

JUBENILAK



ENTRENATZAILEAK

• Jokin Arrillaga • Aritz Albisua • Victor Perez

JOKALARIAK

- | | | |
|--------------------|-----------------------|--------------------|
| 1 Jon Arakistain | 9 Imanol Etxeberria | 17 Ion Ordax |
| 2 Jokin Andrade | 10 Markel Fernandez | 18 Ion Perez |
| 3 Koldo Aragon | 11 Jaime Gabilondo | 19 Fabian Romero |
| 4 Erick Asensio | 12 Xabier Gil | 20 Mauricio Romero |
| 5 Aner Astigarraga | 13 Julen Gomez | 21 Ibai Tajuelo |
| 6 Aitor Barrutia | 14 Xabier Jauntsarats | 22 Beñat Vilarchao |
| 7 Carlos de Cos | 15 Joseba Manteca | |
| 8 Mohamed El Hait | 16 Miguel Montes | |

INFANTILAK



ENTRENATZAILEA

• Markel Gustino

JOKALARIAK

- | | | |
|------------------|--------------------|-----------------------|
| 1 Julen Gonzalez | 6 Hodei Tajuelo | 11 Beñat Goenaga |
| 2 Xabat Gandiaga | 7 Jonatan Armendia | 12 Jon Ander Murguizu |
| 3 Mikel Romero | 8 Jokin Olamusu | 13 Sergio Montes |
| 4 Oier Gonzalez | 9 Mikel Ramos | 14 Onar Rascón |
| 5 Manez Osinaga | 10 Adur Odriozola | 15 Ivan Fernandez |

ALEBIN
2. URTEA



ENTRENATZAILEA

• Ander de Luis

JOKALARIAK

- | | | |
|--------------------|--------------------|---------------------|
| 1 Jon Caballero | 6 Galder Laskurain | 11 Hodei Valdivieso |
| 2 Julen Gabilondo | 7 Hodei Calleja | 12 Aitor Estevez |
| 3 Urko Ruiz | 8 Igor Bedaio | 13 Suhaib Elkanouni |
| 4 Antxon Zubiaurre | 9 Imanol Agirre | |
| 5 Lander Zubiaurre | 10 Marko Akizu | |



ENTRENATZAILEAK

• Iurgi Rascon • Jon Laskurain • Aitor Oregi

JOKALARIAK

- | | | |
|-----------------|-----------------|------------------|
| 1 Unax Sudupe | 3 Iker Usobiaga | 5 Unai Rodriguez |
| 2 Euker Oliveri | 4 Seif Noucha | 6 Raul Fernandez |

ENTRENATZAILEAK

• Iurgi Rascon • Jon Laskurain • Aitor Oregi

JOKALARIAK

- | | | |
|------------------|--------------------|------------------------|
| 1 Rehan Riasat | 7 Ohian Larrañaga | 13 Axier Oñederra |
| 2 Andres Valdeon | 8 Joel Donoso | 14 Auritz Oregi |
| 3 Eneko Goenaga | 9 Peio Arantzeta | 15 Markel Soraluze |
| 4 Aiert Losada | 10 Beñat Calleja | 16 Inhar Ariznabarreta |
| 5 Ahadu urtiaga | 11 Naroa Zubiaurre | |
| 6 Alex Movilla | 12 Goreti Alonso | |

BENJAMIN
1. URTEA



ENTRENATZAILEAK

• Iurgi Rascon • Jon Laskurain • Aitor Oregi

JOKALARIAK

- | | | |
|-------------------|--------------------|-----------------------|
| 1 Alberto Alvarez | 6 Ander Azkona | 11 Enko Felix |
| 2 Yael Trigo | 7 Joel Rascon | 12 Ane Fidalgo |
| 3 Danel Vaquero | 8 Jakes Arevalo | 13 Alain Yanguas |
| 4 Javier Plata | 9 Gorka Gallastegi | 14 Iker de los Santos |
| 5 Unai Sierra | 10 Eki Amuategi | 15 Iosu Leturiondo |

ALEBIN
1. URTEA

BENJAMIN
2. URTEA

ASTEBURUKO EMAITZAK

Sora A 2 - 0 Ilintxa

Golak: Ander Dominguez eta Ion Casado

Bergara 3 - 4 Sora B

Golak: Mikel Uriguen, Ion Agirregomezkorta eta Argoitz Ariznabarreta

Zestoa 3 - 2 Sora Jubenila

Golak: Mauricio Romero eta Jon Arakistain

Motzean

Orbe Mont Blancoko ultramaratoian

Mont Blancoko ultratrail-a (UTMB) abuztuaren 28an egin zen Chamonix-en. 170 kilometroko ibilbidea eta guztira gainditu beharreko desnibela 20.000 metrokoa da eta munduko txapelketa nagusia kontsideratzen da iraupen luzeko mendi-lasterketen artean. Korrikalariak Mont Blanc mendiari buelta osoa eman behar izaten diote Frantzia, Italia ta Suiza zeharkatuz. Zigorrek 27 ordu ta 10 minutuan burutu du 170 kilometroko ibilbidea eta 38. postuan sailkatzea lortu du 2.560 parte hartzaileen artean. Zigorrek adierazi digunez, "aurreko urteetan ez dut zorterik izan zozketarekin, baina hiru urtean burubelarri ibili ostean lortu dut irteeran izatea". Bejondeizula!



Pala partiduak zapatuan

Soraluzeren izenean palan jokatzeko duten bi bikoteek etxean jokatu dituzte beraien bi norgehiagokak. Larunbatean, goizeko 9:15tan hasita 2. mailan jokatzeko duten Etxeberria eta Gallastegik Hernaniko bikoteari egin beharko diote aurre; ondoren, 3. mailan diharduen Fernandez eta Heriz bikotea Andoingo pilotarien aurka lehiatuko da.

Joan zen asteburuko partiduetan Heriz - Fernandez bikoteak 25-13 irabazi zuen Errenterian. Etxeberria eta Gallastegik 25-9 galdu zuten Azkoitiko pilotarien aurka.

Desafioa bost kiroletara

Gure esku dagoren Ara es l' hora jaialdiaren barruan, hamar herritarrek kirol-desafioa jokatu dute zapatu arratsaldean, 18:00etatik aurrera Zubian. Igerian (ibaian), antxixika, kaxkara batzen, aizkoran eta bizikletan egin beharko dute bi taldetan banatuta, zeinek bizkorrago amaitu. Apustuak egiteko porrak jarri dituzte tabernetan eta azken emaitzara gehien hurreratzen denak herriko merkatariaren produktuekin osatutako saskia irabaziko du. Kataluniako hauteskondeen bezperan, herrian erabakitze eskubidearen aldeko mezua zabaltzeko antolatuta du ekimena Gure esku dagok.



Kirol-desafioak Irailak 26, zapatua 18.00etan hasita Zubi nagusitik



Desafioko partehartzaileak.

Marraskilo Tour arrakastatsua

Laurogeitik gora mendizaleek parte hartu zuten joan zen zapatuan egin zen Marraskilo Tourren. Gehienak herrikoak, baina inguruko herrietakoak ere izan ziren, batez ere elgoibartarrak. Eguraldi bikaina izan zuten ibilbide osoan zehar. Mendizaleek antolakuntza goraiatu dute eta antolatzaileek laguntzen jardun duten boluntarioen lana.



Kontulan 
aholkularitza

Errenta aitortpenak • Zerbitzu juridikoak • Administrazioa lanak • Trafikoko burokrasiak
Lan-arloko aholkularitza • Enpresen konturazio/diskontzioak • Kontabilitatea • etab...

Santa Ana 13 - 1. csk. 20590 Soraluze - Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

MENDIZABAL
okindegia

Egurrezko labean egindako ogia

Kalobarren, 10
Tel. 943 75 20 91

Balategiata, 6
Tel. 943 75 13 99



Antzerki garaia zapatuan abiatuko da



Zikloko antzezlanen kartelak.

Zapatu honetan, iluntziko 20:00etan Ztaularatuko duten *Sucedió en otoño* antzezlanarekin abiatuko da Udaleko Kultura Sailak antolatu duen Antzerki garaia izeneko zikloa. Abenduaren 4ra bitartean beste hiru antzezlan ikusi ahal izango dira, antzezlan komikoak guztiak: urriaren 2an, "Erdibana", Jose Ramon Soroiz eta Iker Galartza aktoreek interpretatua; azaroaren 6an, Glu glu konpainiaren "De cuerpo presente" eta, amaizeko, abenduaren 4an "Erdaldun berrien kluba". Hiru antzezlanok barixakueta eskainiko dira, iluntziko 22:15ean.

Ostegunetako pelikulak

Urritik aurrera hamabostero pelikulak eskainiko dituzte antzokian. Urriaren 8an "Pelo Malo" (Venezuela 2013) filma proiektatuko da eta 22an "Short team 12", ingelesez eta euskarazko azpitu-luekin.

Olatz Sebal Arghizkiak lehiaketan



Mapetan

*Baina agian habiak dira
edo habien itzalak
edo txorien itzalak
mapetan ere agertzen ez direnak
txori lotsagabe hutsalak
oraingoan ez ditut hain erraz aurkitu*

Argazkia: Marta Iraurgi.

Testua: Olatz Sebal.

Olatz Sebalek Getxoko Egizu euskara elkarteak antolatutako Arghizkiak lehiaketara aurkeztu du *Mapetan* izeneko poema Marta Iraurgiren argazkiarekin. Aurkeztutako lan hori lehiaketan sailkatu da.

Fandango eta arin-arin ikastaroa

Urtero bezala, Urrats dantza-taldeak fandango eta arin arin ikastaroa antolatu du. Urriak 2an iluntziko 19:15etan hasiko da ikastetxeko aretoan, Gaztañerreazoka bitartean barixakuero izango da. Ikastaroa adin eta ezagutza maila guztietako pertsoneri dago zuzendua, zerotik hasten direnendako, edo, besterik barik, lehen ikasitakoa praktikatua nahi dutenendako, dantzazaleen artean gozatzu.



Muttiko egunera irteera

Urriaren 11n Arrangoitzen egingo den Muttiko egunera joateko irteera antolatu du dantza-taldeak. Goizean atera eta iluntzean buelta egitea da asmoa. Interesatuak jarri harremanetan dantza taldeko kide-oren batekin.

Basalandareak sukaldatzeko ikastaroa

Domeka honetan, San Andres auzoko lokalean, basalandareak identifikatzen eta sukaldatzen ikasteko tailerra egingo da Udaleko Ingurumen Sailak antolatuta. Diego Mendoza Biologo eta etno-botanikan aditua den irakasleak gidatuko du tailerra. Egitaraua honakoa izango da: 9:30ean paseo etno-botanikoa, 12:00etan batutako basalandareekin platerak prestatuko dituzte, 14:30ean bazkaria eta 15:30ean bazkal osteko "jakinduria trukaketa" egingo dute.



Zorion agurrak



Ander Pastoriza
Irailaren 21ean 11 urte
Zorionak eta segi orain arte
bezin jator.
Pil-pileaneko lankideak.



Euken Mendia Hernaez
Ulriaren 2an 7 urte!! Zorionak
mutil haundi!! Patxo haundi
bat etxekuen partez eta
batez ere Nahian partez!!



Irati Calles Agirre
Uztailaren 23an 4 urte
Zorionak!
Etxekoak



Irene Agirre Arrilaga
Irailaren 6an 6 urte
Zorionak printsesita! Etxeko
eta lagun guztien partez.



Itziar Agirre
42 urte abuztuaren 15ean.
Zorionak etxekoen partez.



Jone Zubiaurre Unamondo
Irailak 19, 5 urte, Zorionak
potxola!!!! Muxu potolo bat
etxeko guztien partez!!




Josu Leturiondo Garcia
Irailaren 9an, 8 urte
Zorionak eta muxu handi
handi bat etxekoen partez!!!



Maren Agirre Aizpitarte
Abuztuaren 14an 4 urte
Zorionak!
Etxekoak



Maren Aldazabal Castillo
Irailaren 25an 2 urte. Muxu
handi bat etxekoen partez!



Maren Etxabe
Abuztuak 21ean 8 urte
Merengezko patxo pila bat
Maite zaibxugu.



Oinatz Beretxinaga Heriz
Irailaren 4an 4 urte
Zorionak potxolo! Patxo handi
bat familiaren partez.



Peru eta Aiuri Gisasola
Zorionak bikote!
Maitte zaituztegu! Laztan bana.
Etxekuak.

Urte askotarako!

Zoriondu laqunak eta senitartekoak, lau bide dituzu Pil-pileanen bidez zoriontzeko:

- Watsapa **605706086** zenbakira.
- Webguneko **www.plaentxia.eus/zerbitzuak/zorion-agurrak** helbidean sartu.
- Mezua **aldizkaria@pilpilean.com** helbidera.
- Lokalera ekarri 10.30etik 13:00etara bitartean.

Jaioberrriak




Arlene Baglietto Olaizola
Uztailaren 25ean jaio zen Gurutzetan



Libe Elorza Ugalde
Abuztuaren 5ean jaio zen Mendaron



Iraia Larrañaga Casado
Irailaren 7an jaio zen Arrasaten



Mikele Oregi Mayo
Abuztuaren 1ean jaio zen Mendaron



Eire Beretxinaga Heriz
Irailaren 23an jaio zen Donostian.



Naia Bollar Oregi
Irailaren 5ean jaio zen Mendaron



Asier eta Amane Galarraga Zelaieta
Irailaren 7an jaio ziren Barakaldon

Jaiotakoak eta hildakoak




Markel Rodriguez Aparicio
Mikele Oregi Mayo
Arlene Baglietto Olaizola
Libe Elortza Ugalde
Shanzay Javed
Lefnun Sidi Mohamed Djil
Nahia Reguilon Blanco
Naia Bollar Oregi
Iraia Larrañaga Casado



Carolina Porras Ecija
Jose Luis Ucin Artolazabal
Ramon Gomez Del Olmo
Valentin Fernandez De la Fuente
Javier Ignacio Mendicute Gorosabel
Tomas Ibartutxi Agirre

ba al zenekien...



Placencia lokomotoraren modelua, Couillet 030 T motakoa.

Placencia izeneko lokomotora bat izan zela

1898. urtean, Durango-Zumarraga (Durango – Eibar – Bergara – Zumarraga) trenbidea zabaldu zenean, ibilbidean zeharkatzen zituzten herrien izenak eman zizkieten erosi zituzten lokomotorari. Baina lokomotora nahikorik ez eta, Soraluze izen barik geratu zen. Handik bi urtera, bi lokomotora berri erosi zituzten; aurrekoak baino hobeak zirenez, bati Zumarraga izena eman zoten, eta aurretik Zumarraga zena Placencia izenarekin bataiatu zuten.

Urte askoan, Placencia lokomotora atzera eta aurrera ibili zen, Maltzaga eta Zumarraga artean. Trenbidea elektrifikatu zenean, 1931. urtean, lurrunezko lokomotorak Villaodrid-Vegadeo trenbideari saldu zizkieten, eta han izen berriak jarri zizkieten.

Egilea: Sorapedia sortzeko-lan taldea. Laster Soraluzeren historia jasotzeko gunea zabalduko dugu interneten.

Oharra: Norbaitek trena Soraluzetik pasatzen diharduela erakusten duen argazkiren baten berri baleuka, eskertuko genioko jakinaraztea.

Iturria: www.spanishrailway.com webgunea.

ESKELAK JARTZEKO: 605 706 086

Hilaren azken barixakuan argitaratuko da aldizkarian.

Eskelaren prezioa:

- 30 € (txikia)
- 60 € (luzea)

Pil-pilean:
irakurriena
Soraluzen



**RICARDO PARDO
RANERO**

1955/03/16 - 2015/07/14

*"Eskerrik asko zuen
dolumina eta babesa
adierazi diguzuen guztioi."*

Familia



OROILORE Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

- Zerbitzu etengabea 24 ordutan
- Zerbitzuak aseguruak dituztenentzat. Nahi den hileta zerbitzua aukera daiteke beti.
- Guztiarekin arduratzen gara: eskelak, lorak, errausketak, hilobiratzeak, beilatokia, tramitazioak etab.

617442155 zenbakira deitu eta berehala jarriko naiz zurekin harremanetan

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin eta nire haburua familiar ahalki eta tratunik beroena hurbilekoena ematea izango da.

**ESKELA DOAN
PIL-PILEAN HERRI ALDIZKARIAN**

BERGARAN, Amilaga 27an

maribi • 617442155 • maribi@oroilore.com

KIROLDEGIKO IHARDUEREN ESKEINTZA 2015 - 2016

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
▪ Lehorreko iharduerak					
Spinning	10:30 14:45 19:00	19:00	10:30 14:45 19:00	19:00	
Spinning gazteak			20:00		
Zumba	20:15	15:00	20:15	15:00	
Zumba gazteak	17:00				
Pilates	19:30	09:30 18:15	19:30	09:30 18:15	
Gap Bosu	19:15		19:15		
Fit-Boxing	18:30	10:30	18:30	10:30	
Sebillanak			15:00		
Dantza tropikalak eta aretokoak					20:30
3. adina	10:00		10:00		10:00
Hipopresiboak	18:30		18:30		
▪ Uretako iharduerak					
Igeriketa helduak		19:15		19:15	
Igeriketa umeak	16:45 - 18:45	17:00 - 19:15	16:45 - 18:45	17:00 - 19:15	
Aquagym		14:30		14:30	

+ Padel pista, rokodromoa eta gimnasioa

Zatoz kiroldegiko instalazio
eta ihardueretara

Zerbitzuen kalitatea hobetzen,
herriari onena eskaintzeko



**SORALUZECO
UDALA**



ELIZPE

HORTZ KLINIKA

15. URTEURRENA

Urrian %30eko deskontua
garbiketa eta obturazioetan

TRATAMENDUAK:

- ⊙ ERREBISIOAK DOAN
- ⊙ ODONTOLOGIA GENERALA
- ⊙ INPLANTEAK ETA ZIRUGIAK
- ⊙ ERREABILITAZIOAK
ZERAMIKAREKIN
- ⊙ ORTODONTZIA ETA INVISALIGN METODOA
(ORTODONTZIA IKUSEZINA)



ASEGURUAK:

- ⊙ FRATERNIDAD
- ⊙ IMQ / UNIVERSALUD
- ⊙ UMEEN TRATAMENDUA (P.A.D.I.)



Finantzaketa aukera eta ordainketa erreztasunak
eskeintzen ditugu. Galdetu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe3@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 13:00
16:00 - 20:00